atera gorria!



bbk

BBK26=
abantaila eta deskontu pila

www.bbk.es

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Berria

2005eko URRIA
81. zkia. DOAN

Santutxutik Gorbeiara
CEAR-Euskadi
Amagoia Bilbao

Daniela Freudenberg

"Euskara ikasteko sistema eta irakasleak oso onak dira"

Betikoak

Santutxu Futbol Taldea (1925)

Aspaldikoa da futbola gurean, ez dago dudarik. Osterantzean begitu goiko erretratu hori. Santutxu Futbol Taldearen antxinako argazkia da. Egia esanda, datu gitxi dekogu kontetako. 1920 hamarkadako urteren baten eginda dago eta futbol zelai hori ez da Santutxukoa. Jokalarietarik bakarra ezetuten dogu: Eusebio Alzibar, makurtuta dagoana. Inork datu gehiago baleki, bota dagiazala.

Argazkia Koldo Gomezek laga dosku.

Kalderapeko
euskal kultur gunea

Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



AURKIBIDEA

GERTOKO AK

- Iritzia 4
- Santutxu-Gorbeia 5
- Begoña eta euskerea 8
- Taldea: CEAR 10
- Keramika eskultoreak 12
- Elkarrizketa: Daniela Freudenberg . . .15
- Inkesta 19
- Mahatsberriak 20
- Hezkuntza 24
- Odoriaga mendia 27
- Amagoia Bilbaoren liburua 28
- Horoskopoa/Agenda 30

Honeik Bertonekoak handittute dabiltzez interneten sartu direzenik hona. Gaur esan dostie rebista inportante batek (eurek baino inportanteagorik ez dagoela pentsaten daurie koittaduek) entrebistie eitten etorri jakiela, lehengo egunien interneteko leku inportantisimo baten be euren autue egin ei zeurien ta hola dabiltzez ba, managerra topaten..

Da handittute ibiltie zer dan, eta oingoan portadan hameko inor ez, alemana atara daurie ba! Mahatserridxe txikidxe-edo lotu jakie, honeik Der Spiegel-eri egin gure dotzie konpetentzia gero! Euskeraz eskribidute ganera, hori dok hori ba!

Da ikusirik Alemaniatik be etorten direzela euskerie ikasten, honeik pentsau daurie datorren urtien Frankfurt guztidxe etorriko dala Begoñeko erromerire eta taloa saltxikakaz saldu biherko dala. Edo Santutxu-Gorbeia martxie Zeberiotik barik, Düsseldorf-etik pasauko dala. Arkaitz Estiballesek be ez dakitt txapelketie irabaziko daben edo zer eingo daben, baie ensegida baten Berlinerako biletie hartu biherko dau Santutxuko Bertso eskolien sukurtsala zabalteko, ze honeik giridxok desietan ei dagoz Merkel-eri kopla batzuk botateko. Esan dostie hurrengo finala Barakaldon barik Munich-en egingo dela seguramentien.

Fikeko eskultorak be Leipzig-eko plaza nagusidxen eskulturek ipinteko ofertie eukin ei daurie, ta Amagoia Bilbaori kontratu indefinidoa opetsi ei dotzie Hannover-eko restaurante elegante baten.

Handittute batzuk, baie beste batzuk lastime handiagoak ez ixetie balla handidxek hobeto saltateko, CEARekoeri pregunteu bestelan.

Firmatue: Mahats Merke

GURE BAZTERRAK

FONTECHA Y SALAZAR KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN

Begoñako eleizatearen beheko aldean, badogu kale bat, Buztintzaurreta (Campo de Volantín) batzen dauena Castaños kaleagaz, Mandobide bideguru-tzean. Beti be, jende askok ez daki zergaitik jarri jakon kale honeri izen hau; horregaitik, jarraian, horren azalpenak emongo ditugu.

Bada, Pedro Fontecha y Salazar Araban, Gaubeako Nograron, jaio zan, 1673. urtearen inguruan, eta Bilbon hil 1753an. Bera legelari ospetsua izan zan, eta ahalduna izan zan Batzar Nagusietan; hori ez eze, Bizkaiko Jaurerriko aholkularia izan zan 1718a ezkeroztik.

Berak hainbat liburu idatzi zituan, eta, besteak beste, berari izenik entzutetsuena emon eutsana izan zan 'Escudo de la más constante fe y lealtad del muy noble Señorío de Vizcaya'. Izan bere, liburu hori 1870. urtearen inguruan argitaratu zan, eta beraren helburua izan zan Bizkaiko Forua aldeztea. Lan horrek egundoko arrakasta izan eban, eta haren argitalpen barriak egin zituan Bizkaiko Foru Aldundiak. Dana dala, liburu horrek jasoarazo eban astrakalarengaitik, Espainiako Gobernuak bahitu eban bera, foruak 'larregi' defenditzeagaitik.

Besteak beste, Pedro Fontecha y Salazarrek argitaratu eban 'Verídica y puntual representación al muy Leal Señorío contra el manifiesto de D. Joseph de Zavala y Miranda', 1743an edo 1744an. 1990. urtean, ostera, Roman Basurto historialariak argitaratu eban Pedro Fontecha y Salazarren liburuen ondarea, 'La biblioteca de Pedro Fontecha Salazar' izenagaz.

GOTZON LOBERA REVILLA

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

BILBAO EUSKARAZ

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarrondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola,
Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

2005eko urria - 81. zkia.

SANTUTXUTIK GORBEIARA, OINEZ

AURTEN ERE MAHATSORRI KOADRILA HANDI BATEK IBILBIDE OSOA EGIN DU

Testua: Eneritz Ibarrondo
Argazkiak: BERTON

Pagomakurren argazki bat, Gorbeiarako azken igoera hasi baino lehen.

Urriaren 22an hogeita hamarren bat lagunek Santutxutik irten eta Gorbeiaraino joan ziren. Batzuk oinez eta besteak bizikletaz. Azken urteotako ohiturari eutsi egin diote berriz ere, ahalegina samurra ez izanda ere. Basarratetik goizeko seietan ateratzen direnek hamaika ordu behar dituzte gurutzera ailegatzeko. Hori bai, Pagomakurren bazkalduta.

Egiriñaotik gora, gurutzerantz

Goizeko seiak laurden gutxiak aldera hasi zen jendea Basarraten biltzen. Mendizale haiek bide osoa oinez egiteko asmoa zeukaten. Hogei bat pertsona bildu ziren eta goizeko seiak aldera abiatu ziren Gorbeiarako bidean. Aurretik bide luzea zeukaten, kilometro asko eta mendi, herri eta erreka ugari Santutxu eta Gorbeia bitartean. Eta batez be, aldatsak, mota guztietako aldatsak bidelagun.

Eurek oinez egin zuten bidea, beste batzuk, ostera, bizikletaz joan ziren, urtero lez. Hamarren bat lagun izan ziren azken horiek eta goizeko hamarrak eta laurden aldera irten ziren Basarratetik.

Antolatzaileen esanetan, parte hartu zutenetarik gehien-gehienak gazteak ziren. Eguerdiko ordubietan pedalak eragin zituztenak eta zapatak urratu zituztenak, denak, Pagomakurren bildu ziren.

Azken hiru urteetan Ernai Santutxuko gazteen kultur elkarteak Santutxu-Gorbeia mendi irteera antolatu du

HAMARRETAKOA

Bidean, geldiuneak egiteko hiru puntu seinaleztatu zituzten antolatzaileek. Lehenengoa Ermitabarriko Andra Mari baselizan (Zeberio) jarri zuten. Oinez zetozenak ailega zirenerako, han aurkitu zituzten Ernai Santutxuko Gazteen Kultur Elkarteko hainbat kide, egunkaria, salda, ardoa eta sagardoa banatzen, megafoniaz eta musikaz lagunduta, heltzen zirenei animoak eman asmoz. Beharko zituzten, kilometro asko eginda eduki arren artean aurretik bide luzea zeukaten eta.

Ondorengo geldialdia, Bikotzganeko bidegurutzean ipini zuten, Orozko, Zeberio eta Areatza artean. Bertan 'menua' diferentea izen zen: laranjak eta txokolatea bana-tzen aritu ziren, bidean galdutako glukosa erreserbak berriro ere ondo kargatzeko. Hori bai, han ere musikaz lagunduta egon ziren. Eta azken hitzordua Pagomakurren bertan jarri zuten. Azkena baina inportanteena. Bertan megafonia ipini eta giro alaian bazkaldu zuten guztiek.

2003ko urrian Basarratetik goizeko seietan atera zen koadrila

Pagomakurren bazkalduta, hirurak laurden gutxiak aldera, Gorbeiako tontorrerako bidea hartu zuten aurrera jarraitzeko indarrez zeudenak. Arrabako landatik eta Egiriñaotik igaro ondoren, arratsaldeko bostak aldera heldu ziren gailurreko gurutzera. Helburua lortuta zegoen.

Bide luzea eginda, Aldamin eta Gorbeia arteko lepoan daude, azken aldatsa falta zaiela

GAUEKO PLANA

Eguneko planari gutxi iritzi eta batzuek luzatu egin zuten. Izan ere, eguneko ibilaldia antolatzeaz gain, gaua Gorbeiako aterpean pasatzeko deia egin zien Ernaik auzoko gazteei. Erantzuna ez zen makala izan. Hogei bat gazte geratu ziren aterpean arratsalde pasa egiten eta gero afaltzen. Lo, hamabost bat lagunek egin zuten, aterpetxean.

Giro gozoan ibili ziren bertan arratsaldez, afaria prestatu, afaldu, kantatu... Solaserako tartea ere hartu zuten eta ehizaren, ekologismoaren, Kubaren... eta hainbeste konturen gainean ere aritu ziren hizketan. Josu Martinezek eta Txaber Fernandezek gainera, gitarraz eta bibolinaz lagunduta, ondo animatu zuten gaua.

Biharamun goizean, esnatu, gosaldu eta dena batu ostean, eguerdi aldera, bueltatu ziren Santutxura. Hori bai, buelta ez zuten oinez egin.

XIX. EDIZIOA

Hemeritzigarren urtea da Santutxu-Gorbeia mendi irteera antolatzen dela. Santutxuko Mendi taldeak antolatu izan du urtero, azken hiru urteetan, ostera, Ernai Santutxuko gazteen kultur elkarteak hartu du lan hori bere gain. Mendi martxa horretan gazteon parte hartzea aregotzea eduki dute helburu.

Garraioak
Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Sugea taberna Iturriaga, 92
kazolatxoak eta pintxo goxoak

PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!

BEGOÑA ETA EUSKEREA

Begoñako eliza mundu osoan da ezaguna, hain handia da bere ospea. Euskal Herriko bazter askotara zabaltzen da Begoñako Andra Mariganako debozioa. Baina hori ez zen Begoñako errepublikako eliza bakarra. Ermitak be baziren, eta ez gutxi gainera. Gaur errepaso arin bat emango diegu, beste baten bakoitzari bere atala eskaini aurretik.

BEGOÑAKO ERMITAK



San Justo ermita, Jabi Olazaran pintorearen eskutik

Ermita horiek denak desagertuta dagoz gaur egun. Bat bera be ez da salbatu gurean. Ia herri osoan zehar banatuta zeuden: Kristo ermita Uribarrin, Santa Ana Boluetan, San Justo Arbolantxan, Santo Domingo Meazabalen eta San Frantziskito Santutxun.

Boluetatik hasiko gara. XV. mende akabuan, Santa Ana ermita bertako dorretxeari, errotari eta olari lotuta zegoen. Leku askotan horrela jokatzen zuten bandoetako buruek, euren jabego nagusiak bata bestearengandik hur edukita, batasun sozio-ekonomikoa osatuaz. Legizamon familia boteretsuarena ziren Bóluetako bazterrok eta bere baitako eraikinok. Izan, Legizamon leinua Begoñako patroiak ziren, eta hamaika kalapita izan zituzten herritarrekin handikiok elizan gura zituzten lehentasunak begoñarrek onartzen ez zituztelako.

Ermitak feudalismoari atxikirik iraun zuen eta feudalismoa desagertu zenean bera be galdu zen. 1848an Boluetako Santa Ana fabrika sortu zuten, Bizkaiko lehenengo labe garaia eginez. Ordainean, ola zaharra eta ermita desagertu ziren. Baseliza hartatik hiru gauza gelditu ziren: alde batetik, fabrikari lotuta, izena eta kapera bat, lantegiko beharginei erlijio zerbitzuak emateko asmoz berri egina. Kapera hori ere gaur egun desagertuta dago. Bestetik, jaia. Maite Jimenez Otsoa de Aldak 'Begoña 1900' liburuan dioenez, urte hartan Boluetan Santa Ana eguna ospatzen zen uztailaren 26an. Egitaraua? "Meza nagusiaren ostean erromeria eta gero danbolina ordubetez; jarraian, arratsaldeko hiruretatik ilunzeko bederatziak arte musika eta danbolina txandaka".

Ibaizabaleko ibarretatik mendira igoaz, gaur egun Santo Domingo esaten zaio Artxandako goialde horri. Euskaraz, ostera, Egirleta, inguru horretako baserrien izena. Bada, erdarazko izena antzinako ermita bati zor dio. Tradizioari kasu eginez gero, San Vicente Ferrerek sortu zuen Meazabal mendian XV. mendean alderdi honetara predikatzera etorri zenean. Meazabaleko Santo Domingon jaia egiten ei zuten San Roke egunean.

Santxutuko San Frantziskito ermita 1960ko hamarkadan

Artxandatik jarraituz, Arbolantxara jo ezkero Santa Marinako ospitalea topatuko dugu. Bada, erietxe horretako pabilioi berri bat egiteko Begoñako azken ermita bota zuten, San Justoren ermita hain zuzen ere. 1941eko urtarrilean gertatu zen. Ermitaren lehenengo notiziak XV. mendekoak direla jakinda, baselizak 500 urtez zutunik iraun zuen Arbolantxan. Artxiboetan herritarren eta patroien arteko auziak gelditu dira, ermitaren jabegoak zirela medio. Ermitari atxikituta, baserri bat zegoen, ermita jagoteko ardura zeukatenena hain justu. Inguruan basoa zegoen, Justibaso esaten ziotena. Maite Jimenezek bere azterketan dioenez, 1900 urte aldean, abuztuaren 6an ermitaren jaia ospatzen zuten: "goizean goiz hasita, danbolina, suziriak, banderatxoak eta ermitan erromeria". Justuguneko erromeria, antza, baseliza bota zutenean galdu zen eta, BERTONeko irakurleek ondo baino hobeto dakitenez, azken hamahiru urteotan berriro ere hasi da egiten Otxarkoagako Peña Pa Ya konpartsari esker.

KRISTO ETA SANTUTXU

Begoñak beste ermita bi eduki zituen: Kristo eta Paulako San Frantzisko. Lehenengoa Uribarrin zegoen, Zumalakarregi etorbidearen hasieran, gaur egun bere izena daroan kaletik hur. XVII. mendean eraiki zuten, 1653 urtean hain justu, eta 1914an bota zuten. Desagertu ostean haren orubean txatarra biltegi bat paratu zuten.

Paulako San Frantzikori dagokionez, Santutxu izenari lotuta dago. Jose Lopez Otazuak artikulu ederra argitaratu zuen BERTONen 52. zenbakian gai horren inguruan. Bizkaian 'santutxu' esaten zaie santu baten irudia babesteko egindako eraikin edo etxola txikiei. 1583ean santutxu toponimoa bazen gurean, horrelako 'humilladero' -erdaraz esaten zen moduanbati lotuta. Harrez gero, sarri agertzen da artxiboetako agirietan XVIII. mendera arte. Baina San Frantzisko Paularen omenezko ermita 1735 urtera arte ez zuten egin. Eta izan ermita zen, ez santutxua. Beraz, Francisco Barrenetxea handikiak baseliza bertan egin zuenean lehengo tradizio bati segida eman zion... eta beharbada aldatu ere egin zuen, ez dakigulako ze santua omentzen zuten santutxu zaharrean. Gaur egun Viviendas de Vizcaya dagozan alderdian zegoen eta 1975 arte iraun zuen. 1966an beste eliza bat eraiki zuten bere izenarekin.

kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

CEAR-EUSKADI,

MUNDU BERRI BATEN AMETSA AHALBIDETUZ

Atzerritarrei laguntzen dien elkarte horrek Kristo kaletik egiten du lan



CEAR elkarteak aurten ateratako kartela

Ipar Afrikako herrialdeak atzean utzi eta Melilla zein Ceutako hesira abiatzen dira azken bolada honetan milaka lagun. Mundu berri on bat erdiesteko ametsarekin berau igarotzen dute, askotan zaurituta eta beste batzuetan Guardia Zibilaren eskutan eroriz. Sarritan, egunak baraurik eman ondoren, gurera heltzen dira. Orduan, etorkin eta errefuxiatuok nora jotzen dute? Mahatserriko Kristo kalean CEAR-Euskadi GKEra, hain zuzen.

Testua: Iratxe Ruiz
Argazkiak: Berton

CEAR 1989an lanean hasi zen etorkinak eta errefuxiatuak gizarteratzeko. Estatu espainolean lan egiten duen Gobernuz Kanpoko Erakundea (GKE) da, eta 1996an CEAR-Euskadi izaera propioa bereganatu zuen. Soldatapeko langileak daude, baina gehienak boluntarioak dira. Etorkinari hamaika arlotan eskaintzen diote laguntza eta aholkularitza. Lehendabizi bere egoera zein den aztertu behar da, zergatik hurbildu diren egoitzara. Informazio eta harrera sailean etxebizitza, gizarte eta lege arloko zerbitzuak eskaintzen dizkiete.

Gehienek lan kontuengatik galdetzen dute. Arazoa da paperik duten ala ez. Euskal Herrian lege barruan badaude kurrikuluma eskatzen diete eta batzarrak antolatzen dituzte, lan munduan barneratzeko asmoz.

> ***GKE honek 3.457 pertsona lagundu zituen 2004an, 86 herrialdeetatik etorritakoak***

Eska ditzaketen laguntzak azaltzen dizkiete, baita lo egiteko teilaturik ez dutenei inguruetako aterpetxeei buruzko informazioa eman ere. Pisu bat alokatzeko aukera dutenek askotan trabak dauzkate atzerritarrak direlako. Orduan, CEAR-Euskadiko boluntarioek bi aldeen artean bitartekaritza lanak egiten dituzte. Halaber, Cruz Roja edota Carisaten egoitzetan lekuren bat bilatzen diete.

Atzerritar bat CEAR elkartearen egoitzako atean, Kristo kalean

Bestetik, konpondu behar dituzten kontu juridikoak asko dira. Aholkularitza zerbitzuan asilo eskatzaileei elkarrizketa egiten diete eta berau jaso aurretik egin beharreko tramite guztietan babesa eskaintzen diete: poliziarekin elkarrizketetan, asiloa eskatzeko agirien idazketan, frogen aurkezpenean, ... Gainera, Bilboko Udaleko Inmigrazio Zerbitzua kudeatzen dute, beraz, atzerritartasun arloan aholkularitza legal ezin hobea dute haien eskura.

LAGUNTZAK

GKE bat den neurrian, laguntza eskaini bai, baina gizartea sentsibilizatzeko saila ere badute. Atzerritarren eta errefuxiatuen errealitatea gizarteari helarazteko zioarekin sentsibilizazio sailean ekintzak antolatzen dituzte: hitzaldiak, tailerrak eta elkarte desberdinei ikastaroak eman; umeentzako CD-Rom hezitzaileak editatzen dituzte eta hedabideekin harreman estua dute.

Eskaintzen dituzten zerbitzuak aurrera ateratzeko boluntarioen, partikularren, enpresen, fundazioen, elkarteen eta administrazio publikoen babesa ezinbestekoa dute.

IAZKO DATUAK

Etorkin ekonomikoak eta asilo politikoa eskatzen dutenak doaz Kristo kaleko egoitza honetara. GKE honek 3.457 pertsona lagundu zituen 2004an, 86 herrialdeetatik etorritakoak.

Gehienak etorkin ekonomikoak izan ziren: horietatik, %57 gizonezkoak izan ziren. Portzentaje bera ezkongabeak. %69ren adina 26 eta 45 urte artean zegoen, eta beste %19 gazteagoak, 19 eta 25 artekoak. Boliviatik etorri ziren gehien, ondoren Marokotik, Kolonbiatik eta Ekuadorretik.

Bestetik, iaz lagundutako 389 pertsona asilo eske zeuden. Euretatik %73 gizonak, eta gehienak 26 eta 45 urte artekoak. Gainera, hiru pertsona aberri bakoak (apatrida) ziren.

MELILLAKO ERREALITATEA

Etorkinek Ceuta eta Melillan bizi duten errealitatea ezagutzeko asmoz, CEAR-eko lehendakari Javier Galparsoro bertara abiatu da. Komunikabideek bertsio bat ematen dute baina lehengo pertsonan frogatu nahi zuen. Euren egoitzara heldu aurretik etorkin askok gainditu behar dituzten oztopoak asko dira eta.

Javier Galparsorok, bisitatutako eremuan Espainiak nazioarteko zuzenbidea urratzen duela salatu du. Irregulartasunak ugari dira eta horregatik, Barne Ministerioaren erabakien kontrako helegiteak prestatzen ari dira.

Elkarteko lehendakari eta abokatuak ikusitakoaz "negatiboki harrituta" laga du. Marokoko mugan gauzak oso txarto egin direlako, erantzukizunak argitzea eskatzen dute.

Espainiar estatutik kanporatutako 73 etorkinen kasua lotsagarria dela diosku. Euren egoeragatik kezkatuta daude. "Gai honek dimentsio mundiala hartu du. Gertakarien oihartzunak sentsibilizatzeko balio behar du, arazoa jatorritik konpondu behar duena sentsibilizatzeko, alegia", adierazi du.

Galparsoro eta beste GKEetako lankideek euren lana arazo barik egin ahal izan dute. Bideo asko grabatu dituzte eta froga horiez baliaturik "pausu asko" ematea aztertzen ari dira. Albiste ugari izango da aurki.

ESKULTURA BAKAR ETA ORIJINALAK

Itziar Bengoa eta Gloria Etayo Fika kaleko Lurbe tailerreko artistak dira

Basauriko zeramika eskolan ezagutu zuten elkar Itziar Bengoak eta Gloria Etayok eta eskuez egiten zekitena praktikatu eta aurrera eramateko zeramika talde bat osatu zuten. Duela hamar bat urte sortu zuten eta erakusketaz erakusketa ibili izan dira harez geroztik. Egun zeramika eskulturan dihardute buru belarri eta Fika kalean Lurbe izeneko tailerra daukate.

Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona

Gaur egun Itziar Bengoak eta Gloria Etayok zeramika lantzen dute gehien bat. Buztina daukate, beraz, lehengai nagusi. Hala eta guztiz be, burdina eta egurrezko euskarriak ere erabili izaten dituzte behin baino gehiagotan. Lehengai horiez zer egiten duten? Zehazki esanda, mota biko lanak. Batetik, muralak, trofeo edo garaikurrak, abizen batzuetako armarriak... horiek denak enkarguz agindutakoak izaten dira. Beste aldetik, bestelako materialak prestatzen dituzte beren beregi azokatan saltzeko.

Fikako tailerrean den-dena eskuz lantzen dute eta ez dute molderik batere erabiltzen. Beraz, bertatik ateratako pieza bakoitza bakar-bakarra da, ez dauka parerik. Erosleak badaki kopiarik gabeko artelan bat eskuratu berri duela.

Bada aldea, nabarmena gainera, azoketako eta enkarguz agindutako lanen artean. Izan ere, azoketarako pieza merkeagoak egiten dituzte, salmentan jartzeko gero. Enkarguz nahi izanez gero, ordea, piezak landuagoak dira, beti ere, denak bezeroaren gustuaren araberakoak.

Itziar Bengoa eta Gloria Etayo Bizkaiko Artisauen Elkarteko partaideak dira. Horrek esan gura du euren lanek autore egiaztagiria daramatela aldean. Basauriko Aldartea zeramika eskolan ikasi zuten eta bertatik atera ondoren zenbait lan egin zuten elkarrekin Lurbe sortzea erabaki zuten arte.

ESMALTEAK

Lanak, esan legez, Fika kaleko 66 zenbakiko euren tailerrean egiten dituzte. Zelan egiten den pieza bat? Hasteko eta bat, diseinua egin behar dela esan digute. Dela paperean marraztuta, dela maketatxo bat eginda, hasierako lana garrantzi handikoa da. Ondoren, buztinaz pieza egiten dute, eta egindakoan sikatzen utzi behar zaio.

Behin ondo lehortuta dagoenean labean sartzen dute, 900-1000 gradutara hain zuzen, eta labetik atera eta gero esmaltea botatzen zaio. "Gure esmalteak eskuz egindakoak dira, ez dira esmalte industrialak, eta horrela zuk erabakitzen duzu zein kolore nahi duzun zehazki, eta piezaren leuntzea zein izango den ere, distiratsuagoa, zimurtsuagoa... bezeroak nahi duen bezala", esan digu Itziar Bengoak.

Prozesua ez da hor amaitzen, ezta gutxiago ere. "Behin esmaltea emanda -jarraitu du Gloria Etayok- pieza labera doa beste behin. Guk

ABENDUKO ZUBIA (3-11)

ITALIA	595,00 Euro
PORTUGAL	480,00 Euro
AMSTERDAM	340,00 Euro
PARIS	340,00 Euro

mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak
GRUPO STAR VIAJES
www.ibiltari.com
Iturriaga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 28
48004 SANTUTXU - BILBO



ADI ASESORIA
FISCAL · CONTABLE · LABORAL
JURIDICO · MERCANTIL
Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net
Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

santutxuko herriko taberna
Iturriaga 96.
Gosari bereziak:
Kafea + pintxoa 1,50 €.
Euskal Herria AURRERA!!

Agapi
Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk
Tlfnoa: 944336916 -Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

gres erregaitzarekin lan egiten dugu orokorrean. Hori tenperatura handiko buztina da, beraz, labean bigarren aldiz sartzen dugunean mila eta berrehun eta hirurogei gradutara sartzen dugu". Buztin hori etorri Valentziatik dator eta haiei Gasteiztik ekartzen diete.

ARMARRI ETA GARAIKURRAK

Lurbe tailerreko emakume bi hauek Mahatserrian egin zuten euren lèhen erakusketa, Begoñako auzo etxean hain justu, duela hainbat urte. Handik aurrera artista bion lana leku askotan izan da ikusgai. Besteak beste, Bermeon, Bilbon, Madrilen... erakutsi dute euren jardun artistikoaren emaitza. Duela hiru urte euren lanak azoketara ere eramaten hasi ziren eta pozik dagoz jasotako erantzunarekin.

Gure inguruan ere lan eginda daude, zelan ez. Esate baterako, Santutxuko Karmelo eta Txurdinagako Kirikiño ikastolentzako lanak egin dituzte. Beste horrenbeste egin dute Jatorki abesbatzarentzat zein Gaztedi dantza taldearentzat. Horiez gain, ospitale batean paratzeko mural zabal eta polit bat atondu zuten eta jatetxe handientzat lanak prestatu izan dituzte, besteak beste.

Artisau azoketan saltzeko zintzilikari txikiak ere egiten dituzte. Eta Fika kaleko artista biei ilusio handia egiten die armarriak eta trofeoak sortzea, baita enpresa opariak eta ezkontzetarako erregaloak diseinatzea ere.

HITZORDUAK

Fika kaleko artista hauen lanak ikusgai izango ditugu laster gure inguruan. Azaroan bertan, Leioako artisautza azokan parte hartzeko asmoa daukate eta abenduan lanaz gainezka ibiliko dira hil osoan zehar. Durangoko azokan lehengo, liburu azokarekin batera, geroago Bilbon, gabonetan, Abandoko tren geltokiko erakusketa aretoan.... Beraz, emakume bi hauen eskultura zeramikoak ikusteko zein erosteko aukera paregabeak ez dira gutxi izango datozen asteotan.

Kontsultarako ere Lurbe tailerreko artisauak eta euren lanak www.lurbeceramica.com helbidean aurki ditzakezue. Interneteko bazter horretan euren produktuak ipiniko dituzte ikusgai baina oraingoz gutxi batzuk baino ez dauzkate eskegita eta ez dira prezio errealekin agertzen, probak besterik ez direlako. Hala ere, web gunean euren zereginen berri ematen dute. Informazioa eskatzeko parada be eskaintzen dute. Edozelan be, esan legez, oraindik ez dute euren produkturik sarean salgai paratu.

urretxindorra
megadenda
9'30etatik
20'00etara
> Eskola-liburuak urte osoan
> Literatura denontzat
> Material didaktikoa
> Musika eta bideoa
Iparragirre, 26 (48011 Bilbo)
Tfnoa: 94 4240228
urretxindorra@megadenda.com
www.megadenda.com

SANTUTXU EUSKAL ESKOLA
¡ven a aprender euskara!
todos los horarios y niveles
Euskarak euskaldun egiten baitzaitu
P.Pernet,9 Santutxu 4731460
Arbidea,21 Txurdinaga 4117656

elkarrizketa

DANIELA FREUDENBERG

"Euskara ikasteko sistema eta irakasleak oso onak dira"



Daniela Freudenberg Munichen jaio zen. Azken bederatzi urteak, ostera, Bilbon eman ditu, Zabalbide kalean, oraintsu Etxebarrira aldatu den arte. Alemanera irakaslea da hemen baina irakatsi ez eze, ikasi egiten du, euskara hain zuzen ere. Orain Santutxu-Txurdinagako Berbalaguna programan sartu da, euskaldun berriei euskaraz egiteko aukera ematen dien programan alegia, gelan ikasitakoa ezpainetara ekarri nahian. Gurekin euskaraz egin du berba, Oskorriren aspaldiko disko haren izenburua moldatuz: Alemanian euskaraz.

Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona

Noiztik zaude Euskal Herrian?
Bederatzi urte dira hemen bizi naizela.

Zergatik etorri zinen?
Hemen bizi nahi nuen. Nire lagun bat hemengoa zen eta haren bitartez Bilbo ezagutu nuen. Asko gustatu zitzaidan. Gainera, lana aldatu nahi nuen eta hemengo lagunek esan zidaten hemen lan bat topatuko nukeela. Ni alemaniar filologia ikasi nuen Alemanian eta hemen lanpostu bat aurkitzeko esperantzarekin etorri nintzen. Orain alemanera irakasten dut.

Etorri orduko bazenekien Euskal Herrira etorriko zinela?
Bai, bai. Gainera hemen bizitzen hasi baino lehen bost bider behintzat egon nintzen bisitan.

Zergatik hasi zinen euskara ikasten?
Hasieran gogoa baino ez zen. Kaleko kartelak ikusten nituen eta ulertu nahi nituen. Hizkuntzak gustatzen zaizkit eta pentsatu nuen, 'bueno, apur bat ikasiko dut, ulertzeko baino ez'. Gainera, Alemanian pentsatuta neukan beste hizkuntza bat ikasiko nukeela, gogoa neukan. Han pentsatu nuen igual errusiera ikasiko nukeela, zerbait exotikoa...

Zenbat hizkuntza dakizu?
Alemaneraz gain, ingelera, gaztelania eta frantsesa apur bat. Baina nik orduan zerbait berezia nahi nuen eta hona etorrita euskararekin hasi nintzen.

Zenbat denbora daramazu euskara ikasten?
Sei urte.

Orain Berbalaguna programan sartu zara...
Bai. Oraindik hasi baino ez dugu egin baina ideia ona da. Hizkuntza Eskolan ikasten baduzu, esate baterako, ariketa asko egiten dituzu baina hitz egin gutxi. Baina honela, oso ondo!

Askoren arazoa izaten da Bilbon eta Bilbo lako hiri erdaldunduetan euskara ikasi eta nogaz egin eduki ez...
Bai, hori da niri ere gertatu zaidana. Orain Berriatuko lantegi baten alemanera eskolak ematen ditut. Hango langileak denak dira euskaldunak eta elkarrekin euskaraz egiten dute. Han bai, batzutan eurekin euskaraz egiten dut, baina beti klasetik kanpo jakina. Baina bestela hemen Bilbon zaila da.

Euskal herritarrok euskara baloratzen dugu?
Baloratu? Bai. Jendea bere hizkuntzaz harro dago. Baina arazoa da ez dela ingelesa bezalakoa, ikasteko erraza. Euskara oso-oso zaila da, nire ustez. Horregatik, oso lanpetuta bazaude ez da hain erraza euskara ikastea.

Ezagutzen dituzun hizkuntzen artean zailena dela uste duzu?
Bai. Badira beste batzuk, poloniera...

Alemanera ere ez ei da erraza...
Kar, kar. Alemanera eta euskara zailtasunari dagokionez berdintsuak direla uste dut. Baina esan nahi dudana da hemengo jendea nahiz eta harro egon, euskara ikasteko gogorra dela. Ia-ia filologoa izan behar duzu, kar, kar. Jakina, euskara txikitatik badakizu, ez.

Euskara kinka larrian egon da eta hein handi baten oraindik ere badago. Etorkizuna ikusten diozu?
Bai, duda barik. Orain hemengo ume guztiak euskaraz dakite eta horrek etorkizuna ematen dio hizkuntzari.

Zelan ikusten da Euskal Herria Alemaniatik?
Egia esan, ez da askorik ikusten. Han bizi nintzenean, batez ere ETAren atentatuak agertzen ziren prentsan. Azkenaldion Guggenheim museoak ezagunago egin du.

Alemaniara sarri zoaz. Esan diezu euskalduna zarela?
Bai. Aita eta amak diote zoratzekoa dela, hainbeste urte eta hainbeste azterketa egin behar izan dudalako. 'Baina hori ez da inoiz amaitzen?', galdetzen didate, kar, kar.

Irakaslea zara. Zelan ikusten duzu euskara irakasteko sistema?
Nire ustez irakasleak oso onak dira eta sistemak ere egoki-egokiak. Hori ez da problema. Problema da zailtasuna, beti pentsatu behar duzu hori nor-nork da,... Baina sistema ona da eta denetarik dago. Ikastaro bat internetez egin nuen. Erraztasunak badaude, bai.

Bilboko alemanen artean salbuespena zara ala badira gehiago euskara ikasten ari direnak?
Hemen Berbalagunan beste bikote bat dago. Baina orokorrean nik ezagutzen ditudanen artean bakarren batek egin du euskara ikasteko ahalegina.

Gelatik kanpo zerk lagundu zaitu gehien euskara ikasten?
Telebista, irratia eta, batez ere, barnetegia. Baina herri baten banago eta euskaraz egin nahi badut berehala konturatzen dira alemana naizela eta erdaraz egiten didate. Gainera, herrietako euskara ulertzea apur bat kostatzen zait. Kortesia gisa erdaraz egiten didate eta pena ematen dit ze nik nahi dudana euskaraz egitea da...

Azkenean Bilbon gelditu zara. Zergatik duzu hain gustuko?
Asko gustatzen zait. Alde batetik, tamainaz egoki-egokia da. Bestetik, jendea orokorrean oso maitagarria da eta gero paisaia: itsasoa eta mendia.

Bilbora etortzean kazetari gisa jardun nahi izan zenuen. Zer gertatu zen?
Saiatu nintzen korrespontsal bezala lan egiten baina egunkari batetik esan zidaten horretarako Madriletik edo Bartzelonatik egin beharko nuela eta nik ezetz erantzun nuen. Hala ere, oraindik noizean behin artikuluak idazten ditut Alemaniako aldizkari baterako.

Luzaro geldituko zara? Sustraiak hemen botako dituzu?
Bai, bai, kar, kar.

Zortzi galdera labur

Pelikula bat: Obaba.
Liburu bat: 'Printze txikia'.
Musika talde bat: Chambao.
Leku bat: Kobaron (pasealekua).
Izen bat: Ibai.
Kirol bat: Korrika egitea.
Janari bat: Patata tortila.
Mendia ala hondartza: Hondartza.

Hegaztien gripearen beldur zara?



MANU
(URIBARRI)

VIETNAM EDOTA THAILANDIARA JOANEZ GERO, BAI, BAINA HAMEN EZ. MOMENTUZ BEHINTZAT, EZ.

MARIJO
(URIBARRI)

BAI. URRUN DAGOELA DIRUDI, BAINA USTE BAINO GERTUAGOA DAGOELAKO. ETA HELDUKO DA.



JAVI
(SANTUTXU)

EGIA ESAN EZ. MOMENTUZ ARRISKURIK EZ DAGOELA USTE DUT.

BEGO
(SANTUTXU)

BAI. OSO INFORMATUTA EZ GAUDELAKO, ETA IZUGARRIA IZANGO DELA ESATEN DUTELAKO AGIAN.

FLOREN
(PLENTZIA)

BA EZ, BERTOKO OILASKOAK SANOAK DIRA, ELANTXOBEKOAK DIRA ETA.

NIEVES
(PLENTZIA)

EZ. EGIA ESAN, EDOTA DANA JATEARI UZTEN DIOZUN EDOTA JAI DAUKAZU: UNTXIEN TRIKINOSIA DAGO; ARRAINETAN, ARRA...



KOLDO
(INDAUTXU)

EZ DAKIT. BELDURRA SARTZEN DABILTZA HORREGAZ TXERTOAK SALTZEKO. AUSKALO NORAINO EGIA DAN!



ALAITZ
(SOLOKOETXE)

EGIA ESAN EZ HORRENBESTE. MIGRAZIOAK DIREN ALDETIK, ERRESPETUA, BAINA MUTAZIOARENA, EZ DAKIT BA!

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Milaka lagunek erromeria egin zuten Begoñako Andra Mariren omenez

Urriaren 11n basilika ondoko bazterrak jendez beteta egon ziren goizetik gauera arte

1993an tradizioa suspertu zenetik urtero-urtero milaka lagun batzen dira Begoñan urriaren 11n. Aurten be holan izan da eta, eguraldi ona lagun, goizetik gauera arte giro ederra zabaldu zuten basilikako alderdian. Begoñako Amaren eguna ez zen konturatu barik pasa, ez horixe!

Urriaren 11k, beste behin, milaka lagun batu zituen Begoñako elizaren inguruan. Goizean goiz hasita eta gauera arte, Begoñako Amaren altzora edade guztietako pertsonak hurreratu ziren. Fede handiz batzuk eta fede barik besteak, denak elkartu ziren Andra Mariren omenezko erromerian.

Erromeria hori XX. mende hasierako kontua ei da. Orduantxe, 1903 urte aldean, urriaren 11ko jai egun hori egiten hasi ziren. 1993an Begoñako kofradiak hartu zuen, aurrezki kutxa baten laguntzaz, erromeria prestatzeko ardura. Azken hamabi urteotan ohitura hori indar berriz suspertu dute.

Aurten, betiko legean, goizean goiz hasi ziren lehenengo erromesak Begoñara hurreratzen. Goizeko seietan eman zuen lehenengo meza Begoñako parroko Jesus Francisco Garitaonandiak. Ondoren bederatzi gehiago esan zituen, gaua egin arte.

Eliza ondoan txosnak -kaletarrok taloa jateko aukera hori ez ei dugu alferrik galtzen-, erroskilak saltzeko postuak, umeentzako mizkiak, eta hainbeste lagun hara eta hona egun osoan zehar. Gainera, giroa alaitzen trikitilariak, soinujoleak, gaita joleak eta Bilboko 'Mairuek' erraldoiak. Gauaz, ezin falta, su ikusgarriak.

Ez hori bakarrik. Umeentzako txokolatinak banatu zituzten, sasoi bateko ohitura atzera be hartuta. Eta 'Begoñako Ama' izeneko tartaren 800 zati banatu zituzten gozogileek, 1980an asmatutako tarta hori denen ahotan ipintzeko asmoz. Zapi moreak be, 5.000tik gora banatu zituzten antolatzaileek eta umeek be euren lekua eduki zuten olgateko: gargantua, buruhandiak, gaztelu puzgarria,...

OINEZ

Tradizioak agintzen duenaren arabera, egun horretan oinez joan behar da Begoñara. Gaur egun gehiago dira autoz, autobusez edo metroz datozenak, baina hala ere, bide zati bat behintzat oinez egitea gustatzen zaie erromesei. Horregatik, asko izaten dira Zazpi Kaleetatik Mallonako mailaditik igotzen direnak, goizean goiz hasita.

Edozelan be, Begoñako kofradiak iluntzeko zortzietan egiten du Begoñara oinez igotzeko deialdia. Aurten, aurreko urteetan legez, ehunka lagun igo ziren Unamuno plazatik basilikaraino.

Arkaitz Estiballes Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerdietan da

Hurrengo kanporaketa Markinan jokatuko du azaroaren 12an

Arkaitz Estiballesek Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerdietarako txartela lortu du. Arrasateko kanporaketan hirugarren egin zuen baina bere puntuazio altuak bidea eman zion hurrengo fasera pasatzeko. Hurrengo saioa Markinan egingo du, azaroaren 12an.



Estiballes, bizarrarekin, eta Iñaki Zelaia Arrasateko saioan.

Arkaitz Estiballesek 673,5 puntu eskuratu zituen urriaren 23an Arrasaten jokatutako kanporaketan. Saio horretan hirugarren egin zuen arren, puntuaketa horrekin finalerdietara pasatzea erdietsi zuen. Izan ere, berau izan zen puntuen bidez aurrera egin zuen azken bertsolaria.

Estiballesek distira handiko bertsoak egin zituen hala zortziko txikian nola kartzelako lanean. Hamarreko txikiko jardunean eta, batez ere, puntua emanda, motelago ibili zen. Hortxe eduki zuen aurrera egiteko aukera arriskuan. Hala ere, orokorrean lan txukuna eginda, sailkatzea lortu zuen, saioan Jon Sarriegi eta Arkaitz Goikoetxea aurretik gelditu baziren ere.

Arrasatekoa final laurdenetako azken saioa izan zen. Hogeita hamar bertsolaritarik hamabik bakarrik lortu dute hurrengo atalerako txartela. Hamabiotatik lau bizkaitarrak dira: Estiballes, Fredi eta Xabi Paia anaiak eta Etxahun Lekue. Azken hori, gainera, zuzenean sailkatu zen bere saioa irabazita.

Final laurdenetan sailkatutakoekin eta aurreko txapelketako euren emaitzengatik sailkatuta zeudenekin jokatuko dira finalerdiak. Horrela, beste bizkaitar bi egongo dira lehian: Unai Iturriaga eta Igor Elortza.

FINALERDIAK

Finalerdiak berezitasun batez datoz jantzita: saio bina egin beharko dituzte bertsolari guztiek. Hori antolatzeko bertsolari guztiak hiru multzotan banatu eta bakoitzak itzuli bina egin beharko du. Lehenengo saioa Hendaian izango da azaroaren 6an. Hurrengo asteburuan Markinan eta Gasteizen jokatuko dira finalerdiak.

Bigarren itzulia azaroaren 26n hasiko da Zumarragan eta biharamunean Beran beste saio bat izango da. Azkena, Donostian abenduaren 4an.

Estiballesek Markinako eta Zumarragako saioetan hartuko du parte. Galdakao'on jaio eta gure artean bizi den bertsolariak aukera polit bi edukiko ditu bertsolaritzaren elitearen artean aritzeko.

Finala, Barakaldon

Aurten berrikuntza nagusi bat dakar Bertsolari Txapelketa Nagusiak. Berrikuntza ez eze, erronka be bada, eta ez edozelakoa. Txapelketako finala, lehenengoz, ez da Donostian jokatuko. Anoetako eszenatokia laga eta bertsolariak Barakaldon arituko dira, BECeko areto handian.

Finala abenduaren 18an izango da, goiz eta arratsaldeko saioan, ohi legez. Bertan Andoni Egaña txapelduna eta Maddalen Lujanbio txapeldunordea egongo dira, finalerdietako sei onenekin batera. Saioak goizeko hamaiketan eta arratsaldeko lau eta erdietan hasiko dira.

Finalera doazenentzat antolatzaileek zerbitzu bereziak prestatu dituzte: haurtzaindegi bat paratuko dute, bazkariak emango dituzte, autobusak herri askotatik aterako dira eta gainera bertara metroz zein autoz erraz heldu ahalko da. Antolatzaileek 10.000 lagun espero dituzte.

Lekunberriko saioko irudia.

Finaleko txartelak salgai dagoz. Interesatuta egon ezkero, internetez eros daitezke www.txapelketanagusia.com webgunean.

Herrira plataformak bederatzi urte presoen eskubideen alde

Adiskide, agurt´erdi:
Bederatzi urte joan dira Santutxu auzoan Herrira Plataforma antolatu zenetik. Dakizuenez, Santutxuko hainbat elkartek eta auzokidek sortutako plataforma honek presoen egoera gogorarazi nahi du, eta bide batez, haiekiko elkartasuna erakutsi.

Arrazoi ideologikoak gorabehera, eta aldeak alde, beste arrazoi asko daude euskal presoen eskubideak errespetatuak izan daitezen eskatzeko: gizalegea, elkartasun gogoa, giza sentikortasuna, justizia gosea, auzokideekiko atxikimendua, senideen zama astuna, ...
Bederatzi urte bete ondoren, eta Euskal Herriko auzo eta kaleetan beste askok egiten duten moduan, gu ere borondate osoz saiatu arren, presoen egoera ez da hobetu: gero eta gehiago dira kartzelatuak, sakabanatuta daude, kartzela barruko egoera ez da samurtu, eskubideak modu arbitrarioan murrizten zaizkie, unibertsitatean ikasteko eskubideak erauzi dizkiete, 3/4 beteta dutenek barruan segitzen dute, gaixo daudenak ez dituzte kalean jartzen legeak eskatzen duenaren kontra, praktikan bizitza osoko kartzela-zigorra aplikatu nahi diete, senideek arrisku handiegia hartu behar dute haiek bisitatzeko...
Ikusten duzuenez, arrazoi ugari ditugu Santutxuko auzotarrok Herrira plataformaren inguruan lanean jarraitzeko, euskal presoen eskubideen alde gure esku dagoena egiten jarraitu nahi dugu. Hilero manifestazioa ahalik eta modu txukunenean burutu nahi dugu, gero eta jende ugariago bildu nahi dugu gure inguruan, inplikazio gehiagoren bila abiatu nahi dugu, gure arteko ekimenak koordinatu...
Zuzentzen dizuegun eskutitz honek dei bat ere izan nahi du, pertsona presoen eskubideen defentsan lanean lagun diezaguzuen.
Era asko daude, ahalegin ikaragarria egin gabe, modu xumean zerbait gehiago egiteko: hilero manifestazioan zuzenean parte hartu, adiskideren edo senideren bat ekarri, pankarta eramateko txanda hartu, informazioa banatzen lagundu, manifestazioaren ondorengo lehen asteazkenean arratsaldeko 8etan Santutxuko Famili Elkarteko lokaletan (Iturriaga 55 behea) egiten dugun bilerara etorri, zure ideiak azaldu eta gauzatzen saiatu, etab.
Hartara, mezu honek merezi duen arretarekin hartu eta zure ahalmenen arabera zeure egiten saiatuko zarelakoan, ez adiorik.
Adeitasun osoz,

Herrira plataforma

'Kaiera' Santutxun egongo azaroaren 4ean

Espainiako Auzitegi Nazionalak 18/98 makrosumarioa epaitzeko gutxi falta ei denean, berau salatzeko 'Kaiera' Santutxun egongo da datorren azaroaren 4ean. Jakina denez, 'Kaiera'k Euskal Herria bazterrik bazter korrituko du datozen asteotan auzipetuei babesa emateko eta makrosumario horren bidegabekeria ozen salatzeko.

Orain arte EAJ, Batasuna, EA eta Aralar alderdiek eman diote babesa 'Kaiera'ri. Besteak beste, Josu Jon Imaz, Arnaldo Otegi, Unai Ziarreta eta Aintzane Ezenarro izan dira koaderno horretan testuren bat idatzi dutenetarik batzuk. 'Kaiera' herritar guztiei zabalik dago, norberak 18/98 eta antzeko sumarioen gainean bere iritzia eman dezan. Bilbon azaroaren 4ean eta 5ean egongo da. Irudian, Mariano Ferrer kazetaria 'Kaiera' aurkezten.



BERBALAGUNA HASI DA.-

Berbalaguna proiektua hasi berria da Santutxu-Txurdinagan eta itzelezko indarraz egin du. Euskaldun berriei euskaraz egiteko aukera ematen die Berbalagunak, astean behin boluntarioekin paseoan, kirolean edo txikiteoan ibiliaz. Iaz 40 lagun hasi ziren eta ekaina heldu orduko 60 ziren. Aurton, hasi baino lehen 80 dira izena emandakoak. Argazkian, aurkezpen ekitaldia.



BIDAIARIEN TXOKO ARRAKASTATSUA.-

Urrian zehar lau hitzaldi eta beste horrenbeste pelikula bota dituzte Begoñako auzoetxean 'Bidaiarien Txokoa' izeneko zikloan. Jende andana politak hurreratu dira berbaldi zein zine emanaldiotara. Argazkian, eserita, Jose Pablo Arriaga markinar abenturazalea, bere hitzaldia hasi baino lehen.

ZABALBIDEKO TXALETAK BOTA DITUZTE.-

Zabalbide kaleko txaletak bota dituzte azkenaldion. Euren orubea hutsik dago, eraikin berrien zain. Orain asko ez dela Arreta tabernako etxea izan zen, txaletotatik hurhurrean. Horrela jarraitu ezkero, ez da ezer gelditukо.

GAZTETXOEN ARTEKO BIOLENTZIARI AURRE EGITEKO ESKU LIBURUA PLAZARATU DUTE

Neska eta mutilen arteko biolentzia egoerak identifikatzen jakiteko eta soluzio egokiak eman ahal izateko liburuxka argitaratu du Emaisia elkarteak. Arazo motak batu eta eurak konpontzeko aholku sorta prestatu dute 'Xake Mate' bildumako bigarren esku liburu horretan. Argitalpena hezitzaile eta begiraleen artean banatu dute.

Testua: ***L. Albarez***
Argazkiak: ***BERTON***



'Aisialdian biolentziari aurre egiteko aholku sorta' dauka izena Emaisia elkarteak argitaratutako esku liburua. Zabalbide kaleko elkarte horren bigarren liburuxka da, iaz sexismoa gai nagusitzat hartuta antzeko argitalpen bat plazaratu zuen eta. Orduko hura bezalaxe, aurtengoa ere Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Urtxintxa eskolaren laguntzaz kaleratu du Emaisiak.



Gaztetxoak olgetan eta, orokorrean, aisialdian modu jakin batez portatu izaten dira. Harreman horietan neska-mutilak genero identitateaz, estereotipoz eta rolez markaturik agertu izaten dira. Lagun taldearen presioa handia izaten da eta, ondorioz, batzuetan neska eta mutilen artean bazterkeria eta indarkeria egoerak gertatzen dira. "Sarritan -idatzi dute liburuxkaren egileek- harremanetarako gure ereduak erasokorrak eta baztertzaileak direlako".

ADIERAZPENAK

Neska mutilen arteko indarkeria modu askotan agertzen da. Era asko dagoz berau agerian uzteko: keinuak, kolpeak, irainak, zemaiak, lagunen bat gutxiestea, lotsaraztea, ... Jakina horiek denek eragin arteza daukate erasoa jasandako pertsonarengan, "euren gorputzetan, mundua aditzeko eran, sexualitatean, euren buruaz daukaten irudian, duintasunean...", zehaztu dute Emaisiakoek.

Egon gatazka bat dago eta biolentzia darabilena be beldur da, bestearengan mehatxua ikusten ei du, diferentea delako, desberdin pentsatzen duelako, ... "Gatazkaren aurrean errespetua, komunikazioa eta eztabaidaren bitartez konponbidea bilatu barik, bestea gutxietsi eta isilarazten du", argitu dute. Indarkeria horrez bere nagusitasuna agerian laga gura du, bere iritzia eta ikuspuntua gainetik jarrita.

Liburuxkak gomendio orokorrak ematen dizkie hezitzaile eta begiraleei. Alde batetik, jolasetan lehiaketetako irabazleak harrotu barik neska-mutil bakoitzaren egoera eta izaera kontuan hartuta bere ahalegina baloratzeko gomendatzen dute. Bestetik, diferentziak arazo iturri barik aberastasun gisa ikusteko gonbitea egiten dute, baita gaztetxoen arteko hierarkiak, menderapen eta menpetasun harremanak ez onartzeko.

Eskuliburuaren zati handi batek bortizkeriaren adierazpenak azaltzen ditu. Irainetatik hasita -tontoa, kapulloa, tentela,...-, berba sexistak -putaseme, marikoi,...-, eraso psikikoak -zurrumurruak, baten gainean txarto esatea,...-, min fisiko egitea, homofobia -maritxu, mari-mutil,...- genero eta kultur bazterketa, bullying, biolentzia sexual edo sexista,... Atal bakoitza zehazki azalduta dakar liburuak eta irtenbide bana ematen du.

Horrez gain, liburuak hiru sail gehiago dauzka biolentzia gure gizartean zertan den hausnartzeko, erasotzaileak, erasoa jasan dutenak eta 'ikusleak' aztertzeko eta, azkenik, aisialdian bortizkeria kasuei aurre egiteko aholkuak emanez.

BIGARREN LANA

Emaisia elkartea 1997an sortu zen. Urtxintxa begirale eskolatik igarotako 70en bat emakume batu ziren proiektuan eta, harrez gero, hainbeste gauza egin dituzte, beti ere hezkidetzari begira. Ikastaroak, argitalpenak, ...

Liburuxken kasuan, Xake Mate sortak bi dauzka dagoeneko. Lehenengo iaz plazaratu zuten, esan legez, sexismoari aurre egiteko asmoz. 1.500 ale banatu zituzten orduan begirale eta hezitzaileen artean. Argitalpen hari segida eman diote uda honetan biolentziaren gaineko esku liburu berri horrekin.



Izan ere, sorta horretako liburuxka biak euskara hutsez daude. Ez daukate erdarazko itzulpenik. Liburua inteneten dago doan eskuratzeko moduan pdf formatuan. Hona hemen helbidea: www.urtxintxaeskola.org Bertan argitalpenen atalera jotzea besterik ez dago.

hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerra, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu:11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: .....Zenbakia:..... Solairua:.....

Herria: .....Herrialdea:..... Posta Kodea: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia (20 digito): DOHAIN DOHAIN

Sinadura

ODORIAGA (1.245 M.)
SARRIA (MURGIA)

Altube mendatetik, Murgiara heltzean, herriko sarreran ezkerretara jo behar dugu Sarria auzoraino. Baias ibaiaren ondoan dagoen pistari jarraituz, hiru-lau zubi pasa behar ditugu, azkenean aterpe batera heldu arte (Sarriatik toki honetara oinez ordu bat inguru, baina kotxez ere joan daiteke).

Toki horretan bi erreka elkartzen dira, bata Baias deiturikoa eta bestea Larreakorta Biak elkartzen diren tokian, uharka bat dago eta ondoan zubi zahar bat; badago beste zubi handiago bat aterpera pasatzeko (Arkarai izenekoa).

Baias ibaiaren ondotik doan pista batetik joanez, laster Arlobi lekura helduko gara. Hemen Baias eta Arralde errekak elkartzen dira, bakoitzak Arkaraiko zubi zaharraren antzeko bana dauka; Baiasen eskuinetik dator eta bestea ezkerretik. Pista berberetik jarraituz eta Arraldeko zubia eskuinean utziz apur bat geroago harri artean zeharkatuko dugu erreka eta hemendik bostehun bat metrotara, berriro ibai berbera gurutzatuko dugu.



Ezkerretik igotzen den pista batetik joanez, biragune batzuk eginez, pagadi handi eta polit bat pasatuko dugu, Altubetik datorren pista topatu arte. Aginamendiko maldatik doan pista zabal hori, zuri-gorrizko ikurrekin oso ondo seinalatuta dago Odoriaga tontorreraino.

Pista hori jarraituz, hiru mendixkako lepotik ibiliz, lasai joango gara, (zati hau eroso eta leuna da) eta hirugarren mendixka pasatu eta gero, ezkerrerantz, Baranbiotik datorren pistarekin elkartuko gara. Bertan etxola bat dago hiru zuhaitzen artean. Orain Nafakortako maldatik eta Aranaeko Harriaren ondotik pasatu beharko dugu. Apur bat geroago dagoen bidea Orozkorantz doa, baina guk eskumatik eta harri artean doan bidexka hartuko dugu aldapa gogorrean. Tontorrean buzoia dago eta ondoan baita artegi bat ere.

Hemendik ikusmena zoragarria da.

Igoera osoa ordu eta erdian egin dezakegu.

Sastreria PEDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO
Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro
Tfonoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE
GABRIEL ARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA
94 412 82 74
O.P.E: 029/97

MESÓN GURETXE
Santutxuko poteo gunean

'PASTA ARROZ', AMAGOIA BILBAO SUKALDARIAREN LEHEN LIBURUA KALEAN DA

TTARTALOK KALERATU DU ETA PASTA ETA ARROZA PRESTATZEKO 101 ERREZETA BILTZEN DITU

Gure herrian jatearena behar fisiko bat baino askoz ere gehiago dela mundu guztiak badaki. Eta, agian horregatik, sukaldaritza liburu zein programen arrakasta, gure artean beste inon baino hobeto ulertu daiteke. Oraingoan, hala ere, Amagoia Bilbaok idatzitako liburuan, euskal ohitura gastronomikoen mitoak alde batera utzi, eta gure eguneroko bizitzan gero eta leku gehiago daukaten pasta eta arrozarekin egindako errezetei eman zaie protagonismoa. Dena gero eta arinago bizi garelako, baina ondo jaten jarraitu behar dugulako.

Testua: Nerea Aburto / Argazkiak: Iñigo Azkona

'Pasta Arroz' liburua irailean argitaratu zuen Ttartalok bere sukaldaritza saileko 27. zenbaki modura. Bertan pasta eta arroza modu ezberdinetan prestatzeko 101 errezeta agertzen dira; 61 pastari dagozkionak eta gainontzeko 40ak arroza prestatzeko moduak azaltzen dituztenak. Denak prestatzeko errazak, arinak eta merkeak.

Liburuaren aurkezpenean esaten denez: "Gaur egun hedatuen dagoen elikadura prestakuntza erraza eta arineko janariekin osotuta egotearen arrazoi nagusienak presa eta denbora falta dira; elikaduraren kalitatea eta barietatearen kalterako".

Horrela uste du Amagoia Bilbaok ere. "Edonori gomendatzeko liburua dela uste dut. Gaur egun oso azkar bizi gara eta jendeari honelako errezetak gustatzen zaizkio: errazak, arin egitekoak, lortzeko errazak diren jakiekin. Eta liburuan agertzen diren proposamenak horrelakoak dira, eguneko bazkaria plater bakar baten bidez egiteko aproposak edota lanera "tupperrean" eroateko modukoak".

Amagoia Bilbao Santutxuko da, 1969 urtean jaio zen eta Leioan ostalaritza ikasketak burutu eta gero hainbat jatetxeetan egin izan du lan. Gaur egun mahatsorri hori Gipuzkoako haurtzaindegi baten egiten du lan sukaldari modura eta horrez gain, orain dela bost urtetik hona, Gara egunkarian errezeta bat argitaratzen du egunero.

Liburua idazteko aukera, Ttartalo argitaletxeak eman zion Amagoiari, pasta eta arrozarekin egindako errezetetan oinarritutako sukaldaritza liburua egiteko proiektua aurkeztu ziotenean. "Jende askok esaten zidan aspaldi liburu bat atera behar nuela, baina ez nintzen animatzen. Ttartalokoek liburua egiteko proposatu zidatenean gogo askorik gabe hartu nuen, egia esan, gaia apur bat grazi bakoa iruditzen zitzaidalako, soilik pasta eta arrozari buruzko liburua egitea proposatu baitzidaten. Baina behin errezetak idazten jarrita gustua hartzen joan nintzaion. Pozik nago azkenean gelditu denarekin".

KONBINAZIOAK

Ez ei zen sukaldari mahatsorriarentzat gogorra 'Pasta Arroz' liburuko errezeten bilduma egitea. "Gara egunkarian bost urtez errezetak idazten egon eta gero, bertan argitaratutako asko erabili ditut liburuan azaltzeko. Beste alde batetik, errezeta gehienak jakien konbinazio ezberdinetan oinarrituta dagoz, beraz, barazkiak, arraina, haragia, tofua edo algak, arroza eta pastarekin konbinatuz erraza egin zait liburua osatzea".

Errezetak ataletan banatuta dagoz, prestatzeko eraren arabera. Pastari dagokionez: entsalada, pasta betea edota saltsa eta pasta mota ezberdinekin egiteko errezetak agertzen dira. Eta arrozari dagokionez: entsaladak, paellak (arroz sikua), rissotoak (arroz krematsua), eta integralak. Liburuko argazkiak Juantxo Egañak egindakoak dira.

SUKALDEA ETA EUSKARA

Egun, Amagoiak Errenteriako haurtzaindegi baten egiten du lan sukaldari modura, eta honek errezeta ezberdinak esperimentatzeko aukera ematen diola onartzen du. " Umeek denetarik jaten dute. Egia da arroza eta pasta asko gustatzen zaiela orokorrean baina proposamen berriak ondo onartzen dituzte ere. Ekainean, eta bertan ematen ditugun menuak aberatsagoak egitearren, errezeta berriak prestatzen hasi ginen eta adibidez, soja hanburgesa edota zereal ezberdinekin egindako errezetak jar-tzen dizkiegu. Eta harrez gero umeek gehiago jaten dutela ikusi dugu".

Momentuz beste errezeta libururik idazteko asmorik ez dauka Amagoiak. "Agian aurrerago beste bat egitea gustatuko litzaidake, baina momentuz aski daukat honekin. Ez da lan gogorra izan baina momentuz lasai ibili nahi dut. Gainera beste liburu bat idaztekotan ez litzateke honelakoa izango eta denbora gehiago eskatuko zidan, seguruenik."

Liburua euskaraz argitaratzeko aukeraren aurrean ezkor agertzen da Amagoia Bilbao: "Egia da oso sukaldaritza liburu gutxi daudela euskaraz idatzita, eta daudenak, orokorrean, gazteleraz existitzen diren beste batzuen itzulpenak baino ez dira. Orokorrean sukaldaritzako hiztegia eta terminologia gazteleraz erabili ohi dugu eta jendea ez dago ohituta espinakei 'ziazerba' esaten edo salteatu edo frijitu barik euskarazko berbak erabiltzen".

TABERNA Dordoka
Pza. San Martín de la Ascensión
SANTUTXU

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO
Telf. 94 411 99 33

GAIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

horoskopoa

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Orain panteratan joan behar ei duzu... Lemoizera!! Hobe dozu felinoak baketan lagatzea, badaezpada...

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Hi, hipokondriako hori! Hegaztien gripea harrapatutako lelengoa heu izango hazela? Guzurti hori! Hi egungo be ez haz lelengoa izan

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Irribarretxo horregaz nahi dozun guztia lortu ahal dozu, tunante hori!

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Laster datoz notiziak eta... on-onak izango dira!

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Aurtengo zenbatgarren ligea da hori? Marka guztiak apurtu behar dozuz ala?

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Zeurea udako suteen inguruan hitzetik hortzera kontatuko diren istorio horietako bat izango da. Egunetik egunera zeure legenda gero eta handiagoa egiten da.

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Txori batek konta dostena egia bada, baten batek esplikazino asko emon beharko ditu, tunante hori!

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
BERTON inteneten dagonetik internauta itzela egin zara. Baina kontuz, zulo baltzetan galdu barik!

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Ez etsi! Eutsi! Egunen baten lortu egingo dozu... baina lelengo zer dan jakin behar dozu...

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Inuxente hori! Ez egin negar lehoiengaitik, ez dau-eta merezi.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Txoriek ei dakarte hegazti gripea eta zu txoriburu galanta zarenez gero, hobe dozu buruko txori horiek aztertzea, badaezpada...

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Lasai, konpondu egingo dogu, kosta ala kosta. Eta gero, presidentea lehoietara botako dugu.

A D A T O Z

agenda

AZAROAREN 3TIK 26RA
BEGOÑA AUZOAN ZEHAR ETA BEGOÑAKO BASILIKARA BISITA GIDATUAK. EGUEN, BARIKU ETA ZAPATUETAN. BILBOKO UDALAK ANTOLATUTA. IZENA EMATEKO TELEFONOA: 944530523 (9ETATIK 13AK ARTE).

AZAROAK 4
'KAIERA' SANTUTXUN EGONGO DA.

AZAROAK 4
BERRI TXARRAK. KONTZERTUA. KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

AZAROAK 6
PIRRITX ETA PORROTX. KAFE ANTZOKIAN. 16:30 ETA 18:30EAN.

AZAROAK 8
'EHUNGARRENEAN HAMAIKA' LAUAXETAREN OMENEZKO DISKOAREN AURKEZPEN KONTZERTUA. ARRIAGA ANTZOKIA. 20:00ETAN.

AZAROAK 12
BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO FINALERDIETAKO SAIOA. MARKINA. UDAL PILOTALEKUAN. 18:00ETAN.

AZAROAK 17
KURAIA ETA NUUK-AT. KONTZERTUA. KAFE ANTZOKIAN. 22:00ETAN.

Hileko Argazkia

Iñigo Azkona